

## GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariaren karguaz jabetu da

*Horretarako, hitzimateko formula erabili du, euskaraz eta gaztelaniaz*

Miércoles, 22 de julio de 2015

Uxue Barkos Berruezo Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren karguaz jabetu da gaur, uztailak 22, Nafarroako Parlamentuko atarian egin den ekitaldian, Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznarez bertan zela. Ekitaldi horretan izan da ere, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministro Isabel García Tejerina, Ogasun eta Administrazio Publikoen ministro Cristobal Montororen izenean.

Nafarroako agintari nagusiak eta Foru Komunitateko estamentu sozial, ekonomiko eta hezkuntzako ordezkariak izan dituen ekitaldia, 11:30ak aldera hasi da Nafarroako Gobernuo Tronpeta eta Tinbalen Bandak interpretatutako Nafarroako ereserkiarekin. Jarraian, Ganberako Mahaiko lehen idazkari Maiorga Ramirezek Uxue Barkos Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakari izendatzeko Errege Dekretua irakurri du; Barkos honako formula honekin jabetu da bere karguaz.

"Hitzematen dut Nafarroako Foru Araubidea errespetatu, mantendu eta hobetuko dudala, Konstituzioari eta legee men eginen diedala eta Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari karguari dagozkion betebeharrak leialki beteko ditudala".

"Prometo respetar, mantener y mejorar el Régimen Foral de Navarra, acatar la Constitución y las Leyes y cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Presidenta de la Comunidad Foral de Navarra".

Hitzematearen ondoren, Nafarroako Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznarez-ek esku hartu du, eta hark adierazi du gertakari historikoa dela bi emakume izatea Nafarroako erakunde gorenaren ordezkari,



Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariaren karguari zin egiten, Ainhoa Aznarez aurrean duela.

Parlamentua eta Gobernuak; "erabateko nahiz muturreko demokrazia" nahi duela adierazi du, herritarrek bizitza publikoan eta politikoan parte hartuz, haiek duten erabakitzeke ahalmena berreskuratuz.

### **Nafarroako eskubide historikoen babes nekaezina**

Jarraian, Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek bere [agerraldia](#) egin du, gaztelaniaz eta euskaraz. Nafarroan hasten den etapa berriaz aritu da, nafarrek hartutako erabaki subiranoaren emaitza, eta "hamarkadetan zehar Nafarroa aske eta solidario baten alde lan egiten dutenek lekukoa eman digutenei" aitortza egin die, bai eta fusilatutako seme-alabei ere, "diktadura baten errepresioa eta diskriminazioa pairatu zutenak, eta beren ideiak defendatzen jakiten zutenak gaur egun oraindik beren senideen gorpuzkiak ukatzen dizkien demokrazia batean". Beren bizitzarekin ere askatasuna eta aurrerabidea defendatu dutenak ere gogora ekarri ditu, "baina bizikidetzaren eskuzabaltasunarekin, eta beren ideiak inposatzeko edozein indarkeria-mota ukatuz eta salatuz".

Bere aita gogoratu ondoren, bere erreferentzia pertsonal eta politikoa izan dena, Uxue Barkosek adierazi duenez, Nafarroak "bakean elkarrekin bizitzeko aukera historikoa" du indarkeriaren gaitza jasan eta gero; "memoriaren aitortzatik, bakeari heltzera behartuta gaude heriotza gure artetik behin betiko uxatzeko eta ideien defentsa librearen alde eginez", liskarrak urrunduz eta bazterkeriarekin amaituz hizkuntza edo sinesmenengatik. Nafar guztien eskubide sozial eta zibil berberak izatearen alde egin du, gobernu-ekintzaren bidez lurralde-desorekak zuzenduz.

Barkos Lehendakariak aipatu du aldaketa honen indarra politika duin bihurtzeko ahalmenetik lortuko dela, besteentzako zerbitzua izanik, eta "partaidetza nahiz konpromisoaren eguneroko ariketa" modura; horrek konpromiso etiko eta eredugarria izatea dakar jokabide pertsonalak baliatuz, "zintzoak izanez, eta inguruan dugunaren zintzotasuna zainduz". Aldaketa hori erakundeetan parte hartzen dutenei bakarrik ez dagokiela esan du ere, baita gizarteari ere: "Nafar bakoitzak jakin behar du beraiek ere lan egin beharko dutela", arlo guztietako printzipio etikoak presente izanez.

Gogora ekarri du ere, Nafarroak errealitate historiko eta politiko modura duen berezitasuna, eta ez dena beti ikusia izan "akordioaren eta itunaren mahaiko beste aldean izan direnen aldetik"; haiei iragarri die "Lehendakari hau eta bere Gobernuan negoziatzaile nekaezinak aurkituko dituztela eskubide historikoen defendatzeko orduan"; "erantzukizunez heldu behar zaie eskubide horiei, eta inoiz ez pribilejio edo elkartasun eza modura".

Jakinik "Nafarroan abertzale izatearen jarrera politikoa" ez datorrela bat gizartearen gehiengoarekin, honako hau azpimarratu du: "Foru Komunitate honetako emakume eta gizonek bakarrik erabakiko dute beren etorkizuna, inolako presiorik gabe eta kanpoko mendekotasunik gabe".

Bere borondatea erakutsi du ere, "aldaketaren energiak alderdien interesen eztabaidan gal ez daitezen".

Bere agerraldia amaitu du esanez pobrezia Nafarroatik kanpo utzi nahi duela, enplegu beteak lortu, era guztietako diskriminazioekin amaitu, nafarrek euskara bere hizkuntza senti dezatela, Nafarroa gizarte berritzaile modura erreferentzia izan dadila, bertako autogobernua zabaltzea, eta guztiek beren etorkizuna aske erabaki dezatela, bakean, XXI. mendeko Europaren barnean.

### **300 gonbidatu**

Ekitaldian ia 300 bat lagun izan dira, haien artean, Nafarroako Parlamentuko eta Gobernuko lehendakari ohiak, jarduneko Gobernuak, Gobernuko ordezkariak, Bozeramaile Mahai eta Batzordeko kideak, ganberako parlamentariak, eta Nafarroako diputatu eta senatariak. Merindade nagusi eta 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako alkateak ere gonbidatuta zeuden, Nafarroako Kontseilu eta Kontuen Ganberako lehendakariak, Arartekoa, bai eta gizarte, enpresa, sindikatu, unibertsitate eta lankidetzako erakundeak ere, hautatutako lehendakariaren senide eta adiskideez gain.



Karguaz jabetzeko ekitaldia Nafarroako Parlamentuko atarian egin da

Iruñeko Orfeoia bi musika-pieza eskaini ditu: Jaurrietako *Axuri Beltza* ezaguna, karguari zin egin ondoren, eta Raimundo Lanasen "*Navarra mía*", Barkos Lehendakariaren agerraldiaren ondoren. Ekitaldia *Duguna* Dantza Taldeko kide baten aurrekuarekin amaitu da.

### Galería de fotos



Uxue Barkos familia eta adiskideekin



Uxue Barkosen agerraldia.